



**LUKU, Antton**  
**Libertitzeaz**

Iruñea : Pamiela, 2014  
492 or. : ir. ; 24 cm.  
ISBN: 978-84-7681-814-5

Antton Lukuren *Libertitzeaz* liburuaren aipamena egiten hasi aurretik, behar da kontuan hartu zein den egilearen jatorria eta haren kultur ikuspegiaren abiapuntua. Jatorria Baxenafarroako kultura euskalduna litzateke, Lukuk, dantzatik abiatuz, antzerkian murgilduta ezagutu duena. Egilearen kultur ikuspegiak esan daiteke tradizioz datorkigun herri-kulturaren iturritik edaten duela, haren balioak ohartuz, eta eraso guzien aurrean hil ala bizi defendituz. Herri-kultura, osotasun batean ulertua beti, alegia, ez bertso, ez dantza, ez kantu, ez antzerki... horiek guztiak batera osatzen duten errealitatean baizik, tokian tokiko ohituretan lekutua, eta euskara ardatz duela.

Hil ala bizikoa den defentsa horren motiboak ere ez dira ahaztu behar: euskara ardatz duen kultura horren egoera nolakoa den Iparraldean; han jarrita dauzka begiak eta bihotza egileak, nahiz eta egiten dituen hausnarketak euskararen unibertso osoa aintzat hartu. Hausnarketa asko eta afirmazio ugari egiten baititu bostehun orrialdetan barrena, kritika zorrotzak ere bai tartean; ez baikaude txorakerietarako, orain denbora galtzen aritzea barkatu ezineko bekak litzateke. “Antzerkia bera bortizkeria da”, esango digu Lukuk. Politika eta kultura ez dira sekula bereiztuta egon.

Izenari berari dario ironia, *Libertitzeaz* ari delarik, iduri duelako dena festa eta armonia behar duela Libertimenduan, Donibane Garaziko Ihauterian. Berehala ohartuko da irakurlea titulu horren ziriaz. Egileak berak ere ohartaraziko digu, bere nahia izan dela gai horien inguruko azterketa hotza egitea, Unibertsitate girokoa. Eta, hori hala izanik ere, gaiaren eza-gutza sakonarekin batera, orri guztietan nabari da egilearen pasioa, berotasuna; bihotzez maite dituen artedrama horien defentsa egitean, edo bere memorian hain iltzatuak dauden pasadizoak kontatzen dizkigunean. Anttoni Etxako kasu, Zuberoako Maskarada batzuetan aspaldi batean Kabana Handiarena egin zuen hura, sotana beltzez jantzitako apaiz xaharrari begira, bi edo hiru segunduko isilunean plaza osoaren atentzioa bereganatu zuenean; edo, Jean Mixel Bedaxagar suieta zela, Garindaiñen eman zen Ibañeta Pastoralean, mikrofonoak huts egin eta, bere ahotsa altxatuz, azken harmailan ere ondo-ondoan bezala entzun ziren hitzak kantatu zituenean, garbi, soil, denboratik at; edo, Joxe Migel Iztuetak Lazkao-Txikiri kantatu zionekoa, askok gogoan dugun irudia, ispilua eskuetan.

*Toberaren definizio baten bila* abiatuko da lehenik Antton Luku, orain dela hogeitau urte idatzitako testua berriro hartuta. Irakurleari ez zaio zeharo garbi geratuko zer den tobera, eta bata bestearen atzetik nahastuko dira *karrusa*, *kabalkada*, *tobera-mustra*, *libertimendu*, *galarrorts* eta *astolasterrak*; *pastoral* eta *maskaradak*. Dantza eta bertsoa. Antzerkia. G. Hérelle eta beste aditu batzuk ekarriko ditu definizioen osatzera, baina hala ere ez da Antton Lukuren asmoa definizio itxi baten atxikitzea, ezta esparru itxien sailkatzea eta bereiztea ere; horien atzean dagoen “hatsa” atzeman nahi du, haiek antolatzen zituzten jendearen motibazioak ezagutu, sarri metafozez baliatuz, etorkizuneko ikuskizunak sortzeko baliagarri izango zaizkigunak. “Artedrama” nozioa da interesatzen zaiona, antzerkia baino zabalagoa den nozioa, antzezte edo erakuste forma guztiak besarkatzen dituen.

Iparraldean ere transmisio-etena egon dela nabarmendu ondoren, hurbileko erreferentziak berriro sortu nahi horretan, metafora izango da Antton Lukuk erabiliko duen bidea

artedrama horien esanahiaz jabetzeko. Urbeltz folklore-aditua izango du sarri bidelagun, tar-teka Oteitza eta haren “*cromlech*”ak ere bai; Urbeltzen hitzak hartuz, “*sorche*” edo armada-ko prestatzen ziren gazteekin parekatuko ditu Libertimenduko bolantak, eta Urbeltzen zomorroekin, ostera, zirtzilen ibilera bereziak, Baxenafarroako erreketan ageri diren karra-marroekin konparatzen dituenean, beti ere etxea/basa dikotomian: bolantak dira dotoreak, dantzari finak; zirtzilak dira menditarrek, arautu gabekoaren ahotsa. Bolantak: eguzkia, botorea, izate ofiziala; zirtzilak: ilargia, naturaren egutegia, zikloena, gauza gordeena eta gaua-rena. Horixe da Ihauteria Baxenafarroan, azken batean, Europako beste ihauteri guziek kon-tatzen duten gauza bera kontatzen duena, bere izate eta mitologian, bere sinesmen eta fun-tzioetan. Santibate/Libertimendu dikotomia ere aipatzen du Lukuk: Santibate -hegoaldeko santaeskearen parekoa- lehen ihauteria da, neguko edo gaueko ihauteria, udaberrikoaren, Libertimenduaren, oposizioa. Eta ihauteria, eguzki- eta ilargi-egutegien arteko desfase horre-tan gelditzen diren egunak lirake, “zotal-egunak”.

Herensuge itxura hartuko dio Antton Lukuk Libertimenduko jende-segida koloretsu horri. Baina ez da inportanteena itxura hau edo bestea hartzea, metafora horien babesean adierazten dituen inpresio eta intuizioak baizik. Errepaso sakona ematen die Lukuk inguruan ikusi dituen artedrama horiei: bai Maskaradetako pertsonaiei, bai Pastoralari, baita, oro har, Iparraldean azken urteetan sortu diren antzerki obrei ere. Azken aldian argitaratu diren hain-bat tesi ere mintzagai ditu, eta gogor kritikatzeko ditu, batik bat Nicole Lougarot-ek Zubero-ako Maskaradei buruz esandakoak, Lukuren iritzian ez baititu kontuan hartzen gure tradizioan funtsezkoak diren ezaugarriak, esaterako: “arraileria”. Arraileria umorea da, bai, baina “esan gabekoa”ren bidez konplizitatea bilatzen duena. Arraileriak erakusten digu ez dela taburik, denetaz irri egin daitekeela. Bizitzeko manera da, ezbeharrean haserrea uxatzen duena; baina, bereziki, pobreen irria da. Bertsolariek maiz erabili izan dutena.

Urbeltzen bidetik, Lukuk ere “ardura soziala” errebindikatu nahi du folklore-sorkun-tzetan. “*Ahaire zahar huntan bi bertset berririk*”. Euskal dantza garaikidea pretentsio hutsa da beretzat, huskeria, uneko plazerra besterik bilatzen ez duena baina inoiz herritartuko ez dena. Dantza bere testuinguruan behar da irakatsi, plazan duen funtzioan. Izan ere, azke-naldian dantza irakatsia izan delarik eskolako gai bezala eta frantsesez, artedramatik kan-pora atera dute; Zuberoan, aitzindariak Maskaradatik kanpo dantzarazi dituzte, folklorismo edo folklokeria eginez. Bide horretan, Etorri, Oldarra eta Eresoinkaren moduko taldeek Ip-arraldean utzitako arrastoa kalterako izan dela iruditzen zaio Antton Lukuri, ez diolako eus-kal dantzari inolako aportaziorik egin eta, ostera, moda horri segi dioten dantzari askok herriko taldeetan dantzatzeari utzi diotelako talde handi horietan aritzeagatik. Harrezkero, talde txiki askoren joera izan da, haiek imitatuz, kanporako bidaiak egitea beste helbururik izan gabe.

Lehenago eta oraingo antzerkiari errepasoa ematen dio Antton Lukuk. “Elizaren garaia” deitu dio, Iparraldean, 1850etik 1950era bitarteko garaia. Mende gatazkatsua inondik ere: hirugarren errepublikaren jartzea, Eliza eta estatuaren arteko bereizketa... giro horretan sor-tzen da *euskaldun fededun* eredu XIX. mendearen bukaeran. Lukuren ustez Eliza gure arte-dramaren etsai porrokatua izan da, eta eginahalak egin ditu haren eraisteko; artedrama zahar haien orde, aretorako pentsatutako antzezlanak proposatu zituen Elizak, eraikitze morala hel-buru zutenak, eskema argikoak. Oraingo antzezlanak aztertuta, berriz, Lukuk uste du Ip-arraldean errotuta dauden bi antzerki-molde tartekatu behar direla jendea erakarri nahi bada: bata komediaren kutsukoa da, ikusteko goxoa den antzerkia, publikoa bere magalean bil-tzen duena; bestea tobera da, edo haren hatsa duen antzerkia behinik behin, denboran eten-gabe joan-etorrian dabilena, eta ulertzeko nekezagoa dena.

“Antzerki metafora” ere aipatuko digu Lukuk. Zer da metafora? “Antzerkia ona dela egiten duena”. Edo, “antzerkia, antzerkia dela egiten duena”. Eskatzen du fondo poetiko berean sinestea, Euskal Herri bat badela pentsatzea, euskarak komunitate bat osatzen duela eta euskal antzerki bat badela. Larzabal da Lukurentzat antzerki metafora horiek ondoen baliatu dituenak, eta liburuko atal bat hari eskainiko dio, haren obra baten testua kopiatuz. Landart eta Gillom Irigoien ere aintzat hartzen ditu, eta bere buruari ere astindua ematen dio

Lukuk, *Hiru Puntu* antzerki taldean pasatako urteak gogoratuz eta taularatutako antzerkien gainera azterketa eginez. Formaz haratago, beti dago Luku lehengo artedramen espiritua gaurko errealitatera nola egokitu pentsatzen, tobera izango du aipagai berriro, edo galarrotsak, orain "bortitzak" iruditzen zaizkigun arren, garaiko agintearen tirania are bortitzagoari erantzuteko zegoen modu bakarra zena; formak eta espazioak egokitu beharraz ariko zaigu, lehengo herrien lekua orain kantonamenduek betetzen ote duten galdetuko dio bere buruari... beti ere, euskaraz eta euskaldunentzat sortutako ikuskizunak helburu, Iparraldean turismoari begira egiten diren ikuskizunetatik erabat aldentuz.

Bertsoez eta bertso-txapelketez ere mintzo da Luku. Ozen eta garbi gainera. Behar-bada, atal honen interesik handiena ikuspegia bera da, Lukuk berak aitortzen duelako diskurtsoa lhautei edo artedramatik abiatzen dela, dantza edo antzerkia gogoan, eta hortaz bertsoei heltzen die antzerkiaren ikuspuntutik. Bertsolariek eraiki duten pertsonaiari erreparatuko dio lehen-lehenik, garbi esateko *clown*-ekin duten antza agerikoa dela.

"Larderia" da bertsolariek plazara daramaten elementuetako bat, Xalbadorrek eta Ezpondak, plazara joaten zirenean, gazteriari kargu hartzen ziotenean bezala. Juezaren funtzioa da, bertsolariak justiziaz aritu behar baitu, eta ez jende multzo jakin bat behar baino gehiago lardaskatuz. Alegia, festak duen gizartea orekatzeko funtzioa da. Bertsolarien beste elementu inportante bat "bardo" izaera da, eremu edo lurralde nozioa bere baitan duena, eta isiltasuna hautsi behar denean hausten duena.

Aitzolek eta, oro har, Euskal Pizkundearen sortzaileek 1935ean bertso-txapelketa mar-txan jarri zutenaz geroztik, bertsolariaren eginkizuna eta funtzioa aldatu egin direla nabar-mendu nahi du Antton Lukuk, eta zalantzan jartzen ditu txapelketek bertsolaritzari egindako ekarpenetatik asko edo gehientsuenak. Txirritaren estatusa Basarrii pasaraztean, alegia txapelketan parte hartuz hura lejitimatzean, bertsolari-eredu berri baten sorrera ahalbidetuko da. Harrezkero, txapelketak esango du zer den bertso ona, eta zer ez; bertsoak baloratzeko sistema negatiboa da gailenduko, alegia huts egiteak eta potoak biziki kastigatuko dituen, bertsolaritzaren tradizioan beti izan den sistema positiboaren kaltetan, alegia: bertso txar edo kaxkarrak kontuan ez hartzeko joera, noizean behin sekulako bertsoa botaz gero. Sekulako bertsoa, jendeak gogoan hartzen duen hura da, ez derrigor errima eta esaldi borobilez osa-tua, bat-batekoan oinarritzen dena baizik. Lazkao-Txikiren ispilurena.

Kantagintza zaharra du errebindikatzen Lukuk, gehienez ere hamarrekoko nagusian ematen diren bertsoak, Otañoren *Mutil koxkor bat*-en airean esaterako, formakuntza popu-larra dutenek neurtzeko tresnak izan ditzaten bertsoa zer den edo zer ez den. Hitz gehiegi erabiltzeak bertsoa hiltzen baitu, bertsoak funtzionatzen duelako "hitz gutxi" nozioan. Ber-tso-txapelketek egituratutako bertsolaritza berri horretan, plazan jendea zirikatuz eta irria sorra-raziko lukeen bertsolari franko, baztertua da ohiko zirkuituetatik; baita, itxura jakin batekoa ez dena ere, telebistaren galbahea pasatzen ez duena: inork pentsa dezake gaur egun Mañu-korta txapelketa batean, finalerdietan kantatzen?

Bertsogintza aldatzea eskatzen zaie bertsolariei, edo bertsolaritzaren uztea, lehen aipa-tutako bertsolari molde berri horretan, goxotasunera joateko. Leun eta garbi, isurkor eta poe-tiko. Bide aski estua, inondik ere. Eredu horrek, funtsean Aitzolek eta haiek sortutako ber-tsolariaren eredua zintzo eta garbia besterik ez den horrek, gure eremua konkistatu behar du indar aurrerakoen izenean. Eredu urbano horretatik aldentzen den guztia, eredu horren bai-tan baino ulertzen ez dena, "zaharkeria" da, baserri kutsukoa eta baztertu beharrekoa. "Ber-tsolarien infantilizazioa" dator hortik, ulertu behar da infantilizazioa independentzia zentzuan; sistema berriak, txapelketak, funtzio garrantzitsuena galarazten baitio bertsolariari: bardoa-rena.

Berriro hasierara bueltatu behar dugu guk ere, Antton Lukuk bere liburuan egiten duen moduan, bertan esandakoa gogoratzeko: euskaldun egoteko bide bakarra, kulturaren bidea da. Kulturaren bidez izan dira euskaldun gure aurrekoak, oraingoak baino errazagoak izan ez ziren garaietan. Euskararen gotor lekua izan diren espazioak sortu dituzte, Maskaradak egi-nez eta libetitzuz, jendea hezituz eta euskararen baitan integratuz. Bazekiten zertan ari ziren, ez ziren analfabeto eta inkontziente hutsak.

Artedrama horretan kulturaren adar guztiak batzen direlarik, Libertimenduan gertatzen den moduan, errealitate beraren forma anitzak besterik ez ditu ikusten Antton Lukuk dantza, antzerkia nahiz bertsoa. Nahiago bada, euskal dantza, euskal antzerkia eta bertsoa. Eskema horren baitan ulertu behar dira egiten dituen afirmazio batzuk. “*Euskal dantzaria mutua da eta bertsolaria da horren boza*”, edo “*bertsozale ez den dantzaria ez da euskal dantzaria*”.

*Libertitzeaz* ez da erraz irakurtzeko liburua, eta ez naiz euskalkia ulertzeko kontuaz ari: gaiaren ezagutza sakona du egileak, “gaien” ezagutza hobeto esan, harrigarria baita zenbat kultur diziiplina analizatzen dituen, eta denetan iritzia ematen. Hogeita hamar urte luzeko eskarmentua lagun, teorizazioa tartekatzen du Lukuk bizi-esperientziekin, eta kontalari aparta dela erakusten, irakurlea eszenaren erdi-erdian kokatzeko abildadea baitu. Ematen du irakurlea “artedrama” horren barrenean dagoela, egilearekin batera, eta ikusle/partaide dikotomia hausten dela, disfrutatzen ari baikara ikuskizunarekin eta, aldi berean, bertako parte sentitzen baikara. Bere tesiari segituz, beharbada lan honen merituetako bat “artedrama” deituriko nozio horren baitan dago, alegia: Antton Lukuk euskal tradizioan sendo oinarritutako euskal kulturaren ikuspegi bateratua, osoa, ematen digula, eta hori guztia, ez atzera begira gelditzeko, sorkuntzari bide emanez etorkizuna lantzeko proposamen moduan baizik.

Esan beharrik ez dago, gure etxeetako liburutegietan derrigor leku bat egin behar zaion lana dela *Libertitzeaz*.

Xabier Etxabe Zulaika